

HAUTESKUNDE PROZESUAREN ARGIBIDEAK

Master ikasleen edo doktoregaien hamar (10) ordezkariak Master eta Doktorego Eskolako Zuzendaritza Batzordea osatuko dute, besteak beste. Bi izango dira jakintza arlo bakoitzeko. Pertsona horiek masterretan matrikulatutako ikasleen edo/eta eskolako doktorego-programetako doktoregaien artetik hautatuko dituzte, Master eta Doktorego Eskolako zuzendaritzak bi urtean behin deituko duen hautaketa-prozesu baten bidez.

ERROLDAK:

Erroldak kontsulta ahalko dira Master eta Doktorego Eskolako egoitzetan:


- Leioako egoitza nagusia: Biblioteka Eraikina
- Gasteizko egoitza nagusia: Micaela Portilla Eraikina
- Donostiako egoitza nagusia: Barriola Eraikina

Era berean, ikasleak GAUREn bidez begiratu ahal izango du ea erroldan dagoen ala ez, eta ea zein hauteskunde mahaitan (zein ikastegitan) eman behar duen botoa. Era berean, GAUREn bidez aurkeztu ahal izango dira erroldaren kontrako inpugnazioak, eskolako hauteskunde batzordeari zuzenduta.

Errolda behin betikoa denean, ikasleek begiratu ahal izango dute zein mahaitan eman dezaketen botoa.

ZELAN BEGIRATU EA ERROLDAN NAGOEN:

GAUREn identifikatu ondoren, alboko menuan aukera berri bat azalduko da: "CENSO", eta hortik adar bat aterako da: "Censo de la Escuela de Máster y Doctorado de la UPV/EHU". Aukera horretan sakatu eta norberaren erroldako datuak agertuko dira. Azkenik, erroldaren kontrako inpugnazioak aurkezteko formularioa ere ikusiko duzu, datuak zuzenak ez badira edo "No existen datos del censo en el año académico 2018/2019" mezua agertuz gero.



Censo de elección de la Escuela de Máster y Doctorado de la UPV/EHU

Datos del censo:

Censo:	Elección de Representación Alumnado de Másteres y Doctorandas y Doctorandos
Apellidos y nombre:	APELLIDOS85043 APELLIDO2, NOMBRE
Sector electoral:	Alumnado de Másteres y Doctorados
Centro de referencia:	Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa

EMAIL PARA ENVIAR IMPUGNACIONES AL CENSO PROVISIONAL:

mde@ehu.es

Datuak web orriaren bidez begiratu daitezkeen arren, erroldak ez dira webean argitaratuko.

ZER EGIN ERROLDAN EZ BAZAUDE:

Erroldan egoteko baldintzak betetzen badituzu eta hala ere ez bazaude, hori konpontzeko modu bakarra INPUGNAZIOA JARTZEA da.

INPUGNAZIOA ZELAN JARRI:

Inpugnazioa idatziz jarri behar da Erregistro Orokorreko edozein bulegotan, edo, bestela, posta elektronikoa bidaliz mde@ehu.es helbidera, eta Master eta Doktorego Eskolako hauteskunde batzordeko buruari zuzenduz. Inpugnazioak jartzeko epea **maiatzaren 15eko 12:00etan** amaituko da.

HAUTAGAITZAK NOLA AURKEZTU:

Hautagaitzak kolektiboak, itxiak eta ordenatuak izango dira. Idatziz aurkeztu behar dira erregistroko edozein bulegotan, **maiatzaren 31eko 12:00ak baino lehen**, eta Master eta Doktorego Eskolako hauteskunde batzordeko buruari zuzenduta. Ikasleen hautagaitzak jakintza adarren arabera aurkeztuko dira: Artea eta Giza Zientziak, Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Osasun Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura.

Hautagaitzak hautagai guztien jatorrizko sinadurak izan beharko dituzte. Gutxienez bi pertsonak osatuko dute hautagaitza bakoitza. Gizonek eta emakumeek presentzia orekatua izan beharko dute zerrendan, eta txandaka azalduko dira bertan.

Aukeratuak ez diren hautagaiak ordezkotako geratuko dira hautagaitza horretan, zerrendan agertzen diren ordenan. Hautagaitza batek gutxienez bi lagun ez baditu, sinaduraren bat falta bada edo jatorrizkoa ez bada, hauteskunde batzordeak behin-behinekoz onartuko du.

Hautagaitzak kolektiboak direnez, kide guztiek ezagutu behar dute zerrenda osoa. Hori dela eta, zerrendei ezin izango zaie gerora izenik gehitu.

Hauteskunderi buruzko Arautegi Orokorreko 16.3 artikuluari jarraiki, hautagaitza bakoitzak posta elektronikoko helbide bat edo berehala harremanetan jartzeko beste bideren bat emango du; hauteskunde batzordeak helbide hori erabili ahal izango du prozesu osoan hautagaitzari dokumentazioa eskatzeko, informazioa bidaltzeko edo bestelako eskariak egiteko. Norabide horretan baino ez da erabiliko helbidea, hau da, batzordea hautagaitzarekin harremanetan jartzeko besterik ez.